

# Curriculumaren ebaluazioa


*Xabier Etxague Alcalde*

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Didaktika eta Eskola Antolakuntza  
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

**GAKO-HITZAK:** Ebaluazioa. Curriculum. Curriculumaren ebaluazioa.

## 1. SARRERA

Curriculumaren eraketaren sekuentzia ziklikoa honela irudika daiteke:



Artikulu honetan, bada, irudian zehazten diren fase zikliko hauetatik ebaluazioari helduko diogu. Izan ere ebaluazioarekin curriculumaren zabalte-zikloa osatzen da. Gure azalpena sistematizatzeko honako proposamena egiten diogu irakurleari. Eman dezagun curriculum ebaluatzeko kinkan gaudela. Lehenengo lana ebaluazioa planifikatzea izango dugu. Jakina, planifikazioa zehazterakoan hainbat erabaki hartu beharrean gaude. Artikulu honetan hezitzaileak egiten duen erabaki-sekuentziaren bide berbera jarraitzen saiatuko gara. Hezitzaileak ebaluazioa taxutzeko jarraitzen duen diskurtsoaren bide eta norabide berberaz ibiliko gara, zehaztu behar duen elementu bakoitzaren ezaugarriak eta erabaki-aukerak argituz. Erabaki hauen aurrean dauzkagun aukera desberdinak argitzeak ebaluazioaren mamira eramango gaitu.

## 2. DEFINIZIOA

Lehenik eta behin ebaluazioa zer den argituko dugu. Ebaluatzea zera da: *Subjektu edo objektu baten (curriculumak, gizarte-proiektua,...) meritua eta aldaketak eragiteko gaitasuna balioestea irizpide publiko eta zientifikoan oinarrituta, helburua gizarte-prozesu hezitzaileak orientatzea eta hobetzea delarik. Guzti hau teoriaren arabera ongi justifikatuta dagoen plan-gintza zehatz batean integratuta.*

Jarraian definizio honen baitan dauden oinarritzko ideiak jorratuko ditugu:

- Definizioak honako aipamena egiten du hasieran: «*subjektu edo objektu baten (curriculumak, gizarte proiektua,...)*». Aipamen labur honekin ebaluazioaren baitan objektu zehatz bat egon badagoela adierazi nahi dugu. Izan ere ebaluazioa subjektu edo objektu bati buruzkoa da beti. Eta ebaluatzen den subjektu edo objektu horrek ebaluazioaren beraren izaera eraldatzen edo egokitzen du.
- Aurreko paragrafoan analizatu dugun aipamenaren segidan beste aipamen hau heldu da: «*...meritua eta aldaketak eragiteko gaitasuna balioestea*». Aipamen honek ebaluatzearen baitan balioespena dagoela argitzen digu. Kontutan izan balioespenaren baitan hiru azpifase daudela: informazioak jasotzea, informazio hauek konparatzea, eta balioespen-iritzia finkatzea. Ohar gaitezen balioesterakoan konparazio bat ezartzen dugula. Alegia balioetsi nahi dugun subjektua edo objektua beste erreferentzia batekin konparatzen dugu.

Jarrai dezagun gure definizioaren aipamena analizatzen.

Aipamen honetan esaten dugu objektu baten «*meritua eta ondorioak eragiteko gaitasuna*» balioesten dugula ebaluazioan. Berez oso ideia or-hartzailea da hau. Ideia honekin zera adierazi nahi dugu: ezinezkoa da objektu bat bere erabateko osotasunean ebaluatzea. Beraz, ebaluazio-objektuaren ezaugarri edo adierazgarri batzuk aukeratu behar ditugu ebaluazioa zentratzeko. Definizioa ez mugatzeko eta egoera desberdinei irekia uzteko honelako aipamen or-hartzailea hobetsi dugu. Izan ere meritua oso kontzeptu irekia da, balioa eta kalitateari lotutakoa. Bestetik ezin dugu ahaztu hezkuntzaren esparru zabalean kokatzen dela gure lana. Hezkuntzak, funtsean, subjektuengan eta oro har gizartearengan aldaketak eragin nahi ditu, garapena eta hobekuntza bultzatzeko. Curriculumak, hezkuntza-objektua izanik, subjektuengan aldaketak eragitea helburua du. Hortaz, bada, egokitzen jotzen dugu «aldaketak eragiteko gaitasuna» aipatzea definizio honetan.

- Ondoren zera esaten dugu gure definizioan: «...*irizpide publiko eta zientifikoan oinarrituta*». Ebaluazio prozesua burutzerakoan irizpide publikoak erabili behar dira, ebaluazioaren demokratikotasuna bermatzeko.
- Honako hau diogu jarraian: «...*gizarte-prozesu hezitzaileak orientatzea eta hobetzea helburua delarik*». Aipamen honekin gure ustez ebaluazioak izan behar duen azken helburua zehazten dugu. Aurreago irakurriko duzuen bezala ebaluazioak funtzio desberdinak izan ditzake. Horien artean gure ustez orientazioa eta hobekuntza dira ebaluazioaren zioak. Gainerako funtzioak (kontrola, akreditazioa,...), izatekotan, honen menpekoak izan beharko lukete. Alegia, curriculuma ebaluatzen dugu curriculum bera hobetzeko; honen ondorioz hezkuntza, oro har, hobetuko dugu.
- Gure definizioa bukatzeko hauxe adierazten dugu: «...*guzti hau teoriaren arabera ongi justifikatuta dagoen plangintza zehatz batean integratuta*». Ebaluazioa plangintza baten parte da, plangintzan integratua dago. Ebaluazioa ez da prozesu isolatua, curriculuman integratuta dagoen elementua baizik. Errealitate sistemiko baten (curriculum) beste elementua da. Ebaluazioa, plangintza edo sistema orokor batean integratuta dagoen azpi-plangintza edo azpi-sistema da.

Honaino, bada, gure definizioa eta haren inguruko zehaztasunak. Espero dugu irakurlearentzat ulergarriak izana. Ondoko puntuetan ebaluazio prozesuaren azterketari helduko diogu.

### 3. EBALUAZIOAREN FUNTZIOAK

Ebaluazioari heltzen diogunean argi eduki behar dugu ebaluazio honek zein funtzio bete behar duen. Alegia jakin behar dugu, guztiaren buruan, zertarako egiten dugun curriculumaren ebaluazioa. Izan ere ebaluazio honek funtzio desberdinak bete ditzake:

- Ebaluazioaren funtzio diagnostikatzaila. Ebaluazio diagnostikatzailaren bidez curriculumaren garapenean izan daitezkeen potentzialak, gerta daitezkeen hutsak eta topa daitezkeen zailtasunak antzeman daitezke. Funtzio hau, funtsean, identifikatzaila da, curriculumaren garapena baldintza dezaketen faktoreak argitaratzeko eta kontrolatzeko. Azken batean ebaluazio honen helburua argia da: curriculum lan-testuinguruan txertatzea.
- Ebaluazioaren funtzio orientatzailea edo formatzailea. Ebaluazio hau curriculumaren garapen-prozesua ezagutzera orientatzen da. Ezagutza honen helburua curriculumaren inplementazio prozesua hobetzea

da. Ebaluazio hau, oro har, curriculuma garatu bitartean egiten da, hobekuntza prozesuak errazteko, orientatzeko eta gidatzeko. Funtzio hau oso garrantzitsua da curriculumaren atzerako berrelikapena («feed-back») eragiteko.

- Ebaluazioaren funtzio kontrolatzailea edo batutzailea. Funtzio hau curriculumaren helburuen lorpen maila kontrolatzera orientatzen da. Azken finean funtzio honen bidez curriculumak bere helburuak betetzen dituen edo ez, eta zein mailatan betetzen diren, kontrolatu egiten da. Era berean aurreikusi ez diren beste lorpenik edo ondorioz izan ote den zehazten da. Jeneralean, ebaluazio hau curriculumaren garapen prozesua edo zikloa bukatu ondoren egiten da. Emaitza partzialak kontrolatu egin nahi badira, beraiei dagokien azpi-zikloa bukatzerakoan egiten da ebaluazioa. Funtzio hau, funtsean, balioestaile eta interpretatzailea da. Alegia, funtzio honek curriculumak eragindako hezkuntza lorpenak balioestea eta interpretatzea errazten du.

Honaino curriculumaren ebaluazioaren funtzio nagusiak. Azalpen hauen ondoren ñabardura batzuk egin nahi ditugu:

- Funtzio hauek ez dira elkarren baztertzaleak. Hezkuntza praktikan hiru funtzioak beharrezkoak eta elkarren osagarriak dira.
- Funtzio hauek kurrikularen garapeneko momentu desberdinekin bat egin badezakete ere, identifikazio hau oso erlatiboa da:

<b>Curriculumaren Dimentsioak</b>		<b>Ebaluazioaren funtzioak</b>		<b>Ebaluazioaren uneak</b>
Planifikazioa	↔	Diagnostikatzailea	↔	Hasieran
Garapena	↔	Formatzailea	↔	Bitartean
Lorpenak	↔	Batutzailea	↔	Bukaeran

Izan ere funtzio hauek, prozesu ebaluatzaile beraren ondorioz lortutako emaitzak, modu desberdinetara irakurriz edo interpretatuz bete daitezke. Hau da, ikasturte baten bukaeran, une bakar batean alegia, egindako ebaluazio baten emaitzei buruz hiru irakurketak egin daitezke: irakurketa diagnostikatzailea egin daiteke baldin eta datorren ikasturteari begira egoera zertan dagoen aintzat hartzen badugu; irakurketa formatzailea egin daiteke baldin eta garapenean izan diren hutsak identifikatzen baditugu eta datorren kurtsorako hobekuntza-estrategiak zehazten; eta, azkenik, ira-

kurketa batutzailea egin daiteke baldin eta helburuen lorpen maila kontrolatzen badugu.

- Azken batean faktorerik garrantzitsuena ebaluatzailearen asmoa da. Zein asmotan dago ebaluatzailea bere lana egiterakoan: diagnostikatzaila, formatzailea ala batutzailea?
- Ebaluazioari buruzko ikuspegi integratzaileak hiru funtzioak integratu behar ditu.

#### 4. EBALUAZIOAREN HELBURUAK

Zaila egiten da ebaluazioaren helburuei buruz hitz egitea era abstraktuan, inongo curriculum edo erreferentzia zehatzik izan gabe. Horregatik gure testua nahiko orokorra izango da. Gerora irakurleak testu hau testuinguratu egin beharko du curriculumaren ebaluazio proiektu konkretuekin erkatuz.

Ebaluazioaren helburu konkretuak 9 kategorietan bereizi ditugu. Kategoria hauek mapa orokorra adierazten dute. Alegia, ebaluazio guztietan ez dira helburu guztiak agertzen, eta ez dute zergatik agertu behar ere. Izan ere 9 kategoria hauek mapa or-hartzailea eta orokorra adierazten dute. Praktikari helduz, proiektu bakoitzak bere helburu propioak izango ditu, hauekin guztiekin, bakar batzuekin edo batekin bakarrik bat eginez. Kategoria hauetako bakoitzetik helburu espezifikoak erator daitezke. Baina espezifikotasun horretara iristeko proiektu konkretu bakoitzaren ezaugarrietan oinarritu behar da.

Helburu kategoria hauek ebaluazioaren funtzioekin lotu ditzakegu. Lotura hau maila teorikoan egiten dugu, azalpena eta teoriaren sistematizazioa errazteko. Praktika, dakigun bezala, konplexuagoa da eta, zenbaitetan, ez dator bat planteamendu teoriko «puru» hauekin. Hala ere azalpen hau ebaluazioaren marko teorikoa eta praktikoa ulertzeko baliagarria delakoan gaude.

Funtzioa	Helburuak
Diagnostikatzaila	—Curriculumaren testuinguruko faktore baldintzatzaileak ezagutzea eta balioestea. —Curriculumaren proiektu idatzia (dokumentua).
Formatzailea	—Curriculumaren testuinguruko faktore baldintzatzaileak ezagutzea eta balioestea. —Curriculumaren garapeneko elementuen funtzionamendua ezagutzea eta balioestea. —Curriculumaren baliagarritasuna zehaztea hainbat irizpideren arabera: efikazia, efizientzia, or-harkotasuna, poztasuna, nahikotasuna, egokitasuna, koherentzia, objektibotasuna, aplikagarritasuna, erabilgarritasuna, garrantzia, aurrerakuntza, gaurkotasuna, onargarritasuna, malgutasuna.

	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Curriculumak, helburuen arabera, ikasleengan edo erabiltzaileen eragin dituen aldaketak edo ikaskuntzak balioestea.</li> <li>—Curriculumak helburuetan jaso ez dituen eta eragin dituen beste aldaketak, ikaskuntzak edo ondorioak ezagutzea eta balioestea.</li> <li>—Curriculumaren porrota edo arrakastaren zergatiak zehaztea.</li> <li>—Curriculumak aldatzeko edo hobetzeko erabakiak erraztea.</li> <li>—Ebaluazioaren aldeko kultura bultzatzea: partaidetza eragitea, teknika desberdinak erabiltzea, iritziak plazaratzea era askean.</li> </ul>
Kontrolatzailea	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Curriculumak, helburuen arabera, ikasleengan edo erabiltzaileen eragin dituen aldaketak edo ikaskuntzak balioestea.</li> <li>—Curriculumaren porrota edo arrakastaren zergatiak zehaztea.</li> <li>—Curriculumak aldatzeko edo hobetzeko erabakiak erraztea (<i>beti ere helburuen lorpena handiagotzeari begira</i>).</li> </ul>
Akreditatzailea	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Curriculumak, helburuen arabera, ikasleengan edo erabiltzaileen eragin dituen aldaketak edo ikaskuntzak balioestea.</li> </ul>

Koadro honi buruz hainbat aipamen egin beharrea gaudu:

- Helburu hauek ez dira elkarren baztertzailak, elkarren osagarriak baizik.
- Helburu batzuk funtzio desberdinetan agertzen dira, ikuspegi desberdinen so-puntu komuna baitira.
- Funtzio formatzailea osatuena da.
- Ebaluazio integrala egingo bada helburu guzti hauei (funtzio guztiei beraz) eutsi behar zaie.

## 5. EBALUAZIOAREN METODOA

Metodoa zera da: Aldez aurretik zehaztutako helburuetara iristeko bidea. Hau da, honez gero ebaluazioaren planifikazioan gure helburu nagusia edo funtzioa argitu dugu; ondoren helburuak konkretatu ditugu; orain gure buruari gure helburuetara nola iritsiko garen galdetzen diogu.

Metodoak sailkatzeko irizpide desberdinak topa ditzakegu: erabilitako teknikak, ebaluatzaile papera daukaten pertsonak, ondorioak finkatzeko jarraitzen diren prozedurak, e.a. Irizpide desberdinen arabera egin daitezkeen metodo guztien sailkapena eta azalpena lan zabalegia da gure egitas-morako.

Idatzi honetan ebaluazioa gauzatzeko bi metodo nagusi bereiziko ditugu: metodo kuantitatiboa eta metodo kualitatiboa. Ikus dezagun zehazki bi metodo edo ebaluazio-bide hauen arteko desberdintasunak:

	KUANTITATIBOA	KUALITATIBOA
<b>Enfasia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Ebaluazioa neurrerako objektiboan oinarritzen da.</li> <li>— Diseinuak zenbakizko emaitzetara biltzen da.</li> <li>— Kausaltasuna (zergatia –ondorioa erlazioa) ezarri eta erakutsi egin behar da.</li> <li>— Ebaluazioaren emaitzek kasu guztietara (ezaugarri berak dituzten curriculum guztietara) zabaltzeko (orokortzeko) modukoak izan behar dute.</li> <li>— Datuen gehienezko objektibotasuna bilatzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Ebaluazioa gertaeren deskribapenean eta gertaeren ulerkuntza interpretatzailean oinarritzen da.</li> <li>— Informazioen adierazgarritasuna inplikatuaren arteko interpretazioetatik eratorritzen da.</li> <li>— Ebaluazioaren objektua kasu indibidualak izaten dira. Kasuak berak ebaluazioaren balioespenean eta ondorioen mugak finkatzen ditu.</li> <li>— Ebaluazioa gizarte-praktika subjektiboa da.</li> </ul>
<b>Hastapen operatiboak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Ebaluazio prozesu osoa zehatz-mehatz sistematizatzen da.</li> <li>— Ebaluazioa gauzatzeko prozesuan oso aukera txikiak daude berrikuntzarik txertatzeko.</li> <li>— Diseinuak ez du malgutasunik eskaintzen. Zehaztutakoa pausoz pauso jarraitzen da.</li> <li>— Ebaluatzailea curriculumaren erabiltzaileengandik bereizi egiten da. Distantzia hartzen du bere lana betetzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Ebaluazioaren plangintzak irekiak dira.</li> <li>— Gauzapenean malgutasunez jokaten da. Aintzat hartzen dira bat-bateko interesgune berriak.</li> <li>— Ebaluazioa gauzatzeko prozesuak berak orientatzen du aurrerabidea.</li> <li>— Ebaluatzailea «nahasi» egiten da gainerako inplikatuekin.</li> </ul>
<b>Fase nagusiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Proiektuaren diseinua emaitzen kontrolaren inguruan</li> <li>— «Neurtu» daitezkeen aldagaien aukeraketa eta definizioa.</li> <li>— Teknika aukeratzea. Galde-sortaren garrantzia.</li> <li>— Datu bilketa.</li> <li>— Datuen trataera estatistikoa.</li> <li>— «Zenbakietan» oinarritutako erlazioak eta balioespeneak finkatzea</li> <li>— Txostena idaztea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Proiektuaren diseinua prozesuen ezagutzaren inguruan</li> <li>— Proiektu irekiak planifikatzea. Aldagaiak aurreikusi, ebaluazio prozesuaren garapenean erakusten dituen erlazio berriak aintzat hartuz eta integratuz.</li> <li>— Behaketa (behaketa, elkarrizketa, testuen hustuketa,...) or-hartzailea.</li> <li>— Inpresioen jasotze behatzailearen aldetik</li> <li>— Inpresioen trukaketa partehartzaile eta adituekin.</li> <li>— Txostena idaztea partehartzaile eta adituen ekarpenei irekirik</li> </ul>
<b>Teknikak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Galdera-sortak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Balioespene eskalak</li> <li>• Kontrol zerrendak</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Behaketa (partehartzailea, zuzena, etnografikoa)</li> <li>— Elkarrizketa</li> <li>— Eztabaida taldeak</li> <li>— Bizitza historiak</li> <li>— Dokumentuen hustuketa</li> <li>— Egunerokoak</li> </ul>

<b>Informazioaren bilketa</b>	— Egituratua eta sistematikoa	— Malgua: elkarrekinztan oinarritutako prozesu jarraia, praktikak berak orientaturik
<b>Analisiak</b>	— Analisi estatistikoa, gizarte-errealitateari buruzko erlazio kausalak, eta hauen intentsitatea, zenbakien bidez adierazteko	— Diskurtsoen, ekintza eta gertaeren, eta egituren (agerikoen eta ezkutuen) analisi semiologikoa, soziolinguistikoa eta interpretatzailea
<b>Emaitzen irizpidea</b>	— Gizarte jokabideari buruzko lege orokorren bilaketa kuantitatiboa	— Gizarte ekintzaren adiera edo esanahiaren bilaketa kualitatiboa
<b>Zientifikotasunaren berma</b>	— Laginaren errepresentagarritasuna — Balidezia: neurtu nahi den objektua neurtzen da, ez besterik — Fidagarritasuna: ongi neurtzen da; puntuazioen egonkortasuna. — Emaitzen adierazgarritasuna populazioari begira	— Ohar eta interpretazioen kontrastatze aditu independenteekin — Sinesgarritasuna: egonaldi luzeak (behaketa,...); informazio iturri desberdinak. — Prozesuaren baieztapena kanpoko adituekin — Testuinguruaz blai egitea — Egitasuna: etikaz jokatzeko, bertako premiez eta balioez jabetzea, parte hartzea, hobekuntzaz kezkatzea

Aipatutako bi metodo hauek, kuantitatiboa eta kualitatiboa, ebaluazioari eusteko bi moduak dira. Ikusten duzun bezala, lehendabizikoak ikuspegi tradizionalenarekin identifikatzen da. Bigarren metodoaren «gorputze» zientifikoa berriagoa da, nahiz eta gaur egun ezin esan metodo berria denik. Esan dezakegu 1980. hamarkadan eta 1990. hamarkadaren hasieran halako tentsio zientifikoa nabarmendu zela bi joeren artean. Tentsio hau beharrezkoa izan da joera kualitatiboaren garapen zientifikoa bultzatzeko, tentsioak sortzen dituen galderei erantzuteko barne-garapena beharrezkoa da eta. Baina azken 15 urteetan metodologia kualitatiboak heldutasuna eta onarpen zientifikoa lortu ditu. Heldutasun honetara iristeak bi metodoen arteko elkarriketa pausatua bultzatu du. Gaur egun ebaluatzaileak bi lan perspektiba helduak eta emankorrak dauzka. Esperimentzia zientifikoa bien arteko osagarritasunaz baliatzen ari da. Hau da, gaur egun ebaluazio diseinu mistoak oso ohikoak eta emankorrak dira. Metodo kuantitatiboaren zein metodo kualitatiboaren ekarpenez baliatzen dira helburuei erantzuteko Izan ere gaur egun ebaluazioaren gakoa ez da «nola ebaluatu?» galderari erantzutea, fokapen kuantitatiboa nahiz kualitatiboa nahiz mistoa erabat helduta eta onartuta baitaude. Gaur egun gakoa *ebalatu nahi den objektuan* dago. Objektu honen arabera aukeratu dugu metodoa.



## 6. EBALUAZIOAREN OBJEKTUA. ZER EBALUATU?

Jakin badakigu objektu bat bere osotasunean ebaluatzea ezinezkoa dela. Ez dago objektua definitzen dituzten aspektu guzti-guztiak ebaluatzerik. Ebaluazioan beti izanen da alde egiten digun aspekturik. Gure ahaleginak, harrapatzen ez dugun aspektuak gure ebaluazio-helburuetarako garrantzirik ez izatea izan behar du. Curriculumaren ebaluazioa garatu nahi dugunean, bere erabateko osotasunean harrapaezina dela jakinik, curriculum horren aspektu (edo aldagai) garrantzitsuenetan jarri behar dugu gure atentzioa, aspektu hauek curriculum osoaren definitzaile edo adierazle onak direlakoan.

Beraz hona gure galdera giltzarri: zer ebaluatu curriculuma ebaluatu nahi dugunean? Galdera honi erantzuteak ebaluazioaren ardatzera eramaten gaitu. Jakina, curriculumaren errealitate konplexu eta elkarreraginezkoa harrapaezina da. Honenbestez ebaluatu nahi dugun curriculumaren izaera islatzen duten aldagaiak edo adierazleak aukeratu behar ditugu. Argi dago zein den ondoko galdera: zeintzuk dira curriculumaren izaera definitzen duten aldagaiak? Aldagai multzoa zehaztera pasa aurretik, gure azalpenaren oinarrian dagoen eredia azalduko dugu.

Curriculumaren ebaluazioaren baitan honako lau dimentsioak bereiz ditzakegu:

1. Curriculumaren garapen-testuinguru hurbila.
2. Curriculum planifikatua.
3. Curriculum aplikatua
4. Curriculumaren ondorioak

Jakina, ebaluazioa ikuspegi or-hartzailean oinarritu nahi badugu curriculumaren gizarte-testuinguruaren ezaugarri garrantzitsuenak azaldu behar ditugula. Izan ere curriculum bakoitzak gizarte testuinguru jakin batean garatzen da; curriculuma gizarte koordenatu zehatzetan mamitzen da eta ezaugarri desberdintzagileak dituen gizarte talde bati zuzenduta sortzen da. Curriculum ezin da bereizi faktore hauetatik. Baina, curriculumaren gizarte testuinguruaren ezagutza berez ez dagokio ebaluazioari. Ebaluazioaz hitz egiten dugunean balorazioak egiteaz hitz egiten dugu. Eta, lehen azaldu dugun bezala, balorazioak egiterakoan konparazioak egiten ditugu. Baina, gure asmotan ez dago curriculumaren gizarte testuingurua ebaluatzea, ezagutzea baizik. Testuingurua ezagutu egin nahi dugu, curriculuma bera ulertzeko. Ezagutzea, ulertzeko, hori da gure gakoa. Honenbestez gizarte testuingurua ez da curriculumaren ebaluazioaren dimentsioa, ez da ebaluatu behar dugun objektua; baina bai, ordea, ezagutu beharrekoa. Curriculum jakin bat ebaluatzen dugunean bere gizarte koordenatuak azaldu behar ditugu, curriculum bera ulertzeko eta curriculumak zein gizarte premiari erantzuten dion jakiteko.

Gure ebaluazio eredia aipatutako lau dimentsio hauetan oinarritutako ikuspegi sistemikoa da. Ebaluazio praktikak lau dimentsioak aintzat har ditzake edo ikuspegi partzialak eskaini dezake dimentsioetako batean oinarrituz.

Irakurlearentzat orientagarria izan daitekeelakoan Curriculumaren dimentsio bakoitzeko azalpen laburra eskainiko dugu eta osatzen duten aldagai garrantzitsuenak zehaztuko ditugu. Jakina, ebaluatzaileak bere proiektuaren helburu eta baliabideen arabera deskribatzaile garrantzitsuenak desberdintzen jakin behar du.

Gizarte-testuingurua azaldu ondoren helduko diogu ebaluatu behar ditugun dimentsioei.

## 1. Curriculumaren garapen-testuinguru hurbila

Dimentsio honek curriculumaren planifikazio eta aplikazio prozesuak baldintzatzen ditu. Dimentsio honen ebaluazioarekin curriculumaren abiapuntua eta aplikazio baldintzak argitzen dira, proiektuaren berezkotasuna eta testuinguratzea erraztuz. Bestalde, dimentsio honen ebaluazioak curriculumaren garapeneko garrantzitsuak diren informazioak ematen ditu.

Dimentsio honetako aldagai garrantzitsuenak honakoak dira:

Dimentsioa: curriculumaren garapen-testuinguru hurbila	
Faktoreak	Aldagaiak
<b>Espazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Espazio fisiko orokorra</li> <li>— Funtzio desberdineko espazioak: laborategiak, liburutegia, aisialdikoak,...</li> <li>— Espazioaren baldintza objektiboak: argia, hozberoa, oztopogarritasuna,...</li> <li>— Espazioaren baldintza subjektiboak: dekorazioa, atsegintasuna,...</li> </ul>
<b>Baliabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Altzariak: mahaiak, aulkiak, armairuak, arbelak,...</li> <li>— Baliabide materialak: informatikoak, ikus-entzunezkoak, testuak, irudiak, ...</li> <li>— Baliabide ahigarriak: paperak, idaztekoak, pintatzekoak, eskulanetakoak,...</li> <li>— Baliabide ekonomikoak</li> <li>— Baliabide funtzionalak: Curriculumari eskainitako denbora, denboraren kudeaketa, espazioaren kudeaketa,...</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>— <b>Pertsonala:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezitzaileak / irakasleak</li> <li>• Beste pertsonak (ezgaituen laguntzaileak, atezainak, sukaldariak,...):</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Pertsona kopurua</li> <li>— Pertsonalaren formazioa</li> <li>— Pertsonalaren dedikazio denbora</li> <li>— Pertsonalaren bestelako aldagai subjektiboak: motibazioa, identifikazioa, gertutasuna,...</li> </ul>

## 2. Curriculum planifikatua

«Curriculum planifikatua» hitzekin curriculumazaltzen duen dokumentuari heltzen diogu. Curriculum hau, aplikaziora pasatzen ez den bitartean egitasmoa da, baina izan bada. Dokumentu honek hezkuntza asmoak argitara ekartzen ditu eta irakaskuntza praktika gidatuko du. Bere garrantzia begi bistakoa da.

Dimentsio hau ebaluatzeko aldagai garrantzitsutzat honakoak jo ditugu:

Dimentsioa: curriculum planifikatua-	
Faktoreak	Aldagaiak
Marko orokorra	— Curriculumaren justifikazioa — Curriculumak konkretatzeko dokumentuak — Atal desberdinen agerpena
Helburuak eta edukiak	— Etapako gaitasun orokorren mapa — Etapako arloen azalpena — Arlo bakoitzeko justifikazioa — Arloko gaitasun orokorren agerpena — Arloko eduki bloke nagusien zehaztapena — Arloko ikaskuntza-helburuak — Ikaskuntzen desberdinketa: kontzeptuak eta prozedurak — Jokabideen azalpena eta erabilpen hezitzailea (erregulatzaila)
Metodoa	— Metodoa aukeratzeko irizpideak — Metodo jakinen aipamena
Ebaluazioa	— Ikasleen ikaskuntzen ebaluaziorako adierazleak — Curriculumaren ebaluazio formagarria egiteko irizpideak

## 3. Curriculum aplikatua

Dimentsio honek curriculumaren gauzaren praktikoaren dinamika islatzen du. Dimentsio honen ebaluazioa, curriculumazaltzen ari den bitartean egiten bada, curriculumaren aplikazioa hobetzea erraztu dezake, helburu eta bideen arteko elkarrizketa elkarreragilea eta etengabea sortuz. Dena den dimentsio hau ebaluatu daiteke baita ere curriculumaren aplikazioa bukatu ondoren, nahiz eta honela eginda atzeranzko elikapen ondorioa ez hain nabarmena izan. Dimentsio honen ebaluazioa funtzio formagarriaren muinean dago.

Dimentsio hau ebaluatzeko honako aldagaiak zehaztu ditugu:

<b>Dimentsioa: curriculum aplikatua-</b>	
<b>Faktoreak</b>	<b>Aldagaiak</b>
<b>Irakaslearen gelako lana eta jokabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Planifikazioa</li> <li>— Jarduerak</li> <li>— Metodoa</li> <li>— Ebaluazioa</li> <li>— Aniztasunarekiko erantzuna</li> <li>— Motibazioa eta gogoia</li> <li>— Arauekiko betekizuna</li> </ul>
<b>Irakaslearen gelaz kanpoko lana eta jokabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Partaidetza</li> <li>— Motibazioa eta gogoia</li> </ul>
<b>Irakaskuntzarako baliabideen erabilpena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Altzariak: mahaia, aulkiak, armairuak, arbelak,...</li> <li>— Baliabide materialak: informatikoak, ikus-entzunezkoak, testuak, irudiak, ...</li> <li>— Baliabide ahigarriak: paperak, idaztekoak, pintatzekoak, eskulanetakoak,...</li> </ul>
<b>Ikaslearen gelako lana eta jokabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Partaidetza</li> <li>— Motibazioa eta gogoia</li> <li>— Pertsonetikiko errespetua</li> </ul>
<b>Ikaslearen gelaz kanpoko lana eta jokabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Etxeko lanetikiko jokabideak</li> <li>— Ikasketa ohiturak</li> <li>— Eskolaz kanpoko jardueretikiko jokabideak</li> </ul>
<b>Gelako klima elkarrekintza (irakasle / ikasle)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Komunikazioa</li> <li>— Gelako laguntza-giroa</li> <li>— Arauekiko errespetua</li> </ul>
<b>Gelaz kanpoko klima</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Pertsonetikiko errespetua</li> <li>— Arauekiko errespetua</li> <li>— Zaintza eta seguritatea</li> </ul>
<b>Irakasle / irakasle elkarrekintza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Irakaslearen arteko komunikazioa eta lankidetzaren giroa</li> <li>— Koordinazio kurrikularra</li> </ul>
<b>Tutoretza eta orientazio kurrikularra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Irakaslearen tutoretza eta orientazio kurrikularra</li> <li>— Ikastetxeko orientatzailearen lana</li> </ul>
<b>Ikastetxeko Hizkuntza giroa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Ikastetxeko komunikazio hizkuntza</li> </ul>
<b>Hizkuntzen erabilpen kurrikularra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Hizkuntzen erabilpena ikasgaietan</li> </ul>
<b>Eskolaz kanpoko ekitaldiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Eskolaz kanpoko ekitaldiak</li> <li>— Hizkuntza giroa</li> </ul>

#### 4. Curriculumaren ondorioak

Dimentsio honek curriculumak eragindako lorpenak islatzen ditu. Dimentsio honen ebaluazioarekin zehaztuko dugu aurreikusitako helburuen lorpen maila. Aldi berean argitu ditzakegu aurreikusi ez ditugun beste lorpenak edo ondorioak.

Bukaerako ebaluazioa denez ikuspegi or-hartzaileak bideratzeko informazio aberatsak eskaini ditzake. Dena den ez dezagun ahaztu dimentsio honen ebaluazio hutsak abiapuntuak eta prozesuak alboan uzten dituela, oso ikuspegi murrizta eskainiz. Ondorioen ikuspegi adierazkorra lortzeko dimentsio honen ebaluazioa abiapuntuko baldintzen eta prozesuen ebaluazioekin lotu behar dugu.

Edozein ebaluaziotan dimentsio hau ezinbestekoa da, curriculumaren egitasmo nagusia ikaskuntzak eragitera orientatuta baita. Egitasmoaren betekizuna eta betekizun honen inguruko azalpenak izateko ondorioen ebaluaziorari heldu behar diogu ezinbestean. Curriculumaren ziklo batetik bestera pasatzerakoan hartzen diren hobekuntza erabakiak zehazteko dimentsio honen ebaluazioak eskaintzen dituen informazioak behar-beharrezkoak dira.

Dimentsio hau osatzen duten faktoreak eta aldagaiak ondoko taulan adierazten ditugu:

Dimentsioa: curriculumaren ondorioak	
Faktoreak	Aldagaiak
Helburuen araberako ikasleen edo erabiltzaileen ikaskuntzak	— Lortutako ikaskuntzak — Gaitasun metakognitiboak: auto-ezagutza, auto-ebaluazioa, ikasketa teknikak, ardura, autonomia,...
Antzemandako eta helburuetan jaso ez diren beste ikaskuntzak	— Baloreak, gizartearekiko jokabideak, partaidetza, kritikotasuna,...???
Ikasleen erabiltzaileen promozioa / porrota	— Promozio akademikoa / profesionala — Porrota / Curriculumuma uzteak (eskola uzteak)

## 7. NOLA EBALUATU? EBALUAZIO TEKNIKAK

Ebaluazio teknikaz ondoko definizioa eskaintzen dizugu. Teknika zera da:

*Curriculumaren dimentsioei buruzko informazioa jasotzeko erabiltzen dugun edozein prozedura, baliabide, egoera edo tresna.*

Teknikak curriculumaren muinera iristea erraztu behar digu. Dena den jakin behar dugu «nola ebaluatu?» galderari erantzun desberdinak eman ahal dizkiogula. Azken batean galderaren erantzuna ebaluazioaren helburu eta objektuarekin lotu egin behar dugu; elementu hauek (helburua, objektua eta teknika) elkarrekin uztartuta doaz. Ez dago balio unibertsala duen teknirik.

Gure ebaluazio proiektuarekin egokitzen den teknika aukeratzeko gure jakintza pedagogikoa, sormena eta intuizioa jokoan jarri beharko ditugu. Eta kontutan hartu beharko dugu teknika aukeratzeko orduan erabili behar dugun irizpide garrantzitsuenetako bat aplikagarritasuna dela. Hau da, edozein teknika dela ere, inplikaturako agente guztiek eroso sentitu behar dute euren burua informazioa eman eta jaso prozesuaren aurrean. Ebaluatzaileak teknika menperatzen duela antzeman behar du; informatzaileak eskatzen zaizkion lanak argiak direla eta berak bete ditzakeela sentitu behar du. Azken batean teknikak informazioa emateko/jasotzeko prozesua ahal den egoera naturalenean eman dadin erraztu behar du. Edo beste era batera esanda teknikak ezin du baldintzatu ematen den informazioaren jatorrasuna.

Curriculumari buruzko informazio esanguratsua jasotzeko tenika askotaz baliu gaitzeko. Ondoko lerroetan teknika erabilienak jasotzen duen errepertorioa eskaintzen dugu:

- Galde-sortak
  - Estandarizatuak
  - Espres sortuak
- Izkribu irekiak
- Behaketa
- Elkarrizketa
- Eztabaida taldeak / talde fokalak / aditu taldeak
- Egunerokoak
- Karpeta / dossierra / «paper-zorroa»
- Proba batugarriak (azterketak)

Beste informazio iturriak:

- Erakundearen dokumentuak
- Ikasleek edo erabiltzaileek sortutako produkzioak

Azkeneko bi teknikak (erakundearen dokumentuak eta ikasleek edo erabiltzaileek sortutako dokumentuak) lerrotxo batez bereizi egin dugu. Izan ere bi produkzio mota hauek, jatorriz, ez dira sortuak izaten ebaluazioari begira. Baina, ezin uka ebaluatzaileok askotan baliatzen garela produkzio hauetaz curriculumari buruzko informazioak jasotzeko. Erakundearen dokumentuak edo erabiltzaile baten produkzioa ezin da, berez, ebaluazio-teknikatzat jo. Aldiz, lerrotxoaren gainera aipatzen diren teknikak ebaluaziorako beharrezkoak diren informazioak jasotzeko propio diseinatuak eta aplikatuak izaten dira.

Ondoko orrietan ebaluazio teknikei buruzko koadro azaltzailea agertzen da. Irakurleak teknika hauetan sakondu nahi badu erraza izanen du bibliografia espezializatua topatzea. Izan ere lan honek eskaintzen digun aukerak sarrera ematea besterik ez digu errazten.

<b>GALDERA-SORTA</b>
<p>Zertan datza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Ebaluazio objektuari buruz idatzitako galdera multzoa, informatzaileen iritzia jasotzeko prestatua.</li> <li>— Erantzun aukerak itxiak edo irekiak izan daitezke</li> <li>— Motak: <ul style="list-style-type: none"> <li>— Balorazio eskalak <ul style="list-style-type: none"> <li>• Estimazio eskalak (zenbakiz, hitzez)</li> <li>• Eskala deskribatzaileak</li> <li>• Diferentzial semantikoak</li> </ul> </li> </ul> </li> <li>— Kontrol zerrendak</li> </ul>
<p>Orientazioa: kuantitatiboa / kualitatiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Orientazio kuantitatiboa</li> <li>— Diseinu kuantitatiboan ardatzean dago</li> <li>— Kualitatibo-zale «garbiek» erabat baztertzeko dute</li> <li>— Diseinu mistoetan erabiltzen da beste teknika kualitatiboekin batera</li> </ul>
<p>Aldekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Aukera handia dago merkatal esparru espezializatuetan</li> <li>— Oso erabilgarriak dira populazio zabal batera iristeko</li> <li>— Informatzaile guztiei galdera berak egiten zaizkie</li> <li>— Ekonomikoa da</li> <li>— Azkarra da</li> <li>— Oso erabilgarria da informatzaile desberdinen iritzia iragartzeko</li> </ul>
<p>Kontrakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Propio sortutako egoera batean erantzuten da (egoera artifiziala).</li> <li>— Galderaren definizioak errealitatearen mugak jartzen ditu. Errealitatea mugatzen du.</li> <li>— Aurreikusi ez dena ez da jasotzen.</li> <li>— Informatzailearen gainean ez da kontrolik ezartzen</li> <li>— Ez da egokitzen informatzailearen ezaugarri indibidualekin</li> </ul>

<b>IZKRIBU IREKIAK</b>
<p>Zertan datza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Norbaiti, gai batez dakiena adierazteko edo iritzi pertsonalak agertzeko, egiten zaion proba idatzia</li> <li>— Ebaluatzaileak zehazten duen gai bati buruz, informatzaileak dakiena edo duen iritzia idatzi behar du</li> <li>— Jeneralean propio sortutako egoera artifizialetan egiten da</li> </ul>
<p>Orientazioa: kuantitatiboa / kualitatiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Kuantitatiboa zein kualitatiboa</li> </ul>
<p>Aldekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Galdetzen den gaiaren arabera teknika honek curriculumaren dimentsio objektibora zein subjektibora iristea errazten du.</li> <li>— Informatzailearen hitzaldi pertsonala proiektatzen da</li> <li>— Oso malgua da</li> <li>— Ez du exigentzia handirik. Tradizio handikoa da.</li> <li>— Ebaluatzailearen gainean gelditzen dira kontroleko faktore asko: gaiaren mugaketa, erantzuteko testuingurua, denbora, baliabideak, e.a.</li> </ul>
<p>Kontrakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Egoera artifizialetan egin ohi da</li> <li>— Ebaluatzailearen gainean gelditzen dira kontroleko faktore asko</li> <li>— Gaiaren arabera tentsioa sor dezake informatzailearengan</li> <li>— Ez dago kontrol zuzenik informatzailearen gainean. Ez dago egitasuna kontrolatzerik.</li> </ul>



## ELKARRIZKETA

### Zertan datza

- Norbaitekin zerbaiten berri jakiteko edo zerbaiti buruz bere iritzia izateko egiten den solasaldia
- Borondatezko elkarketa da
- Bi aldeen arteko partaidetza irekia behar da
- Norabide bikoitzeko teknika da.
- Informazioa jasotzeko biderik zuzenena, errentagarriena eta eraginkorrena
- Motak:
  - Egituratua
  - Erdi-egituratua
  - Irekia

### Orientazioa: kuantitatiboa / kualitatiboa

- Batez ere kualitatiboa
- Elkarrizketaren erregistro itxiak erabiliz gero «kuantifikatu» egin daiteke.

### Aldekoak

- Oso baliagarria da aspektu lanbrotsuak edo ezkutuak ebaluatzeko
- Oso baliagarria da negoziazorako eta triangulaziorako
- Bi aldeen arteko hurbiltasunak ondorio positiboak dakarzki:
  - Berehalako «feed-back» eragitea
  - Egiatasuna kontrolatzea
  - Komunikazioen zintzotasuna sustatzea
  - Portaera orokorra kontrolatzea

### Kontrakoak

- Exijentzia handiko teknika da.
- Portaera osoa (jarrera, lengoia, keinuak,...) «mezua» bilakatzen da.
- Denbora asko eskatzen du fase guztietan: prestakuntzan, garapenean eta analisisian.
- Anonimatua hausten du.
- Informazioa erregistratzeko arazoa bideratu behar da.
- Erregistroaren erabilpena negoziatu behar da.

<b>BEHAKETA</b>
<p>Zertan datza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Izakiei edo gertaerei begira jarrita, haiei buruzko datuak jasotzea, haien gaineko ezagutza handiagoa lortzeko xedeaz.</li> <li>— Komunikazioa ez da ahozkotasunetik sortzen</li> <li>— Behatzaile eta behatutakoaren arteko erlazioa, partehartzailea edo ez partehartzailea izan daiteke</li> <li>— Inpaktu handia dauka</li> </ul>
<p>Orientazioa: kuantitatiboa / kualitatiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Batez ere kualitatiboa</li> <li>— Behaketaren erregistro itxiak erabiliz gero «kuantifikatu» egin daiteke.</li> </ul>
<p>Aldekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Informazioa egoera naturaletan jasotzen da</li> <li>— Informazioa errealitatetik bertatik jasotzen da, denbora-diferentziak ekidinez.</li> <li>— Informazioa jasotzeko prozesua ez dago informatzailearen gogoaren menpean.</li> <li>— Behatutako subjektuei eskatzen zaien lankidetzatza aktiboa txikia da, beste teknikekin konparatuz.</li> <li>— Beste teknikekin hartu ezin diren aspektuak beha daitezke.</li> <li>— Oso teknika erabilgarria triangulaziorako.</li> <li>— Edozein egoeratarako egokitu daitezkeen teknika malgua da.</li> <li>— Informazio iturriaren kalitateari buruz izan daitezkeen zalantzak saihesten ditu.</li> </ul>
<p>Kontrakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Oso luzea da</li> <li>— Garestia da</li> <li>— Den-dena ez da behagarria</li> <li>— Askotan ezin da egon gertaeraren momentuan</li> <li>— Behatzaile eta behatutakoaren artean sortzen den erlazio emozionalak espontaneotasuna galeraz dezake</li> <li>— Denbora eta ahalegina exijitzen ditu</li> <li>— Prestakuntza teknikoak exijitzen ditu</li> <li>— Jasotako informazioak egoera konkretuari dagozkio; honenbestez oso zaila da generalizazioa.</li> <li>— Erregistroaren arazoa bideratu behar da.</li> <li>— Erregistroaren erabilpena negoziatu behar da</li> </ul>

<b>EZTABAIDA TALDEAK</b>
<p>Zertan datza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Ebaluazio objektuari buruz informazio adierazgarria duten subjektuen bilkura, ebaluatzaileak zuzendutako debate batean parte hartzeko</li> <li>— Debate honetan ebaluazio objektuaren azterketa sakona eta ikuspegi anitzekoa bideratzen da.</li> <li>— Ebaluatzaileak galderak / gaiak aurkezten ditu eta debatea zuzentzen eta dinamizatzen du.</li> <li>— Debatea dinamizatzeke eta informazioak jasotzeko behintzat bi lagun behar dira.</li> <li>— Debatean guztiek parte har dezaten saiatzen da</li> </ul>
<p>Orientazioa: kuantitatiboa / kualitatiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Kualitatiboa</li> </ul>
<p>Aldekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— oso baliagarria da informazio esanguratsuak lortzeko</li> <li>— ikuspegi desberdinak agertzea errazten du</li> <li>— denbora mugatu eta «laburrean» informazio asko lortzen da.</li> <li>— Motibagarria izaten da partaideentzat.</li> </ul>
<p>Kontrakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Egoera artifiziala sortarazten da.</li> <li>— Informatzaileak «aukeratuak» izaten dira.</li> <li>— Debatearen dinamizatzaile trebatuak eta gaian adituak behar dira.</li> <li>— Lan handia eskatzen du prozesu osoan: prestakuntzan, garapenean eta analisisian.</li> <li>— Informazioa erregistratzeko arazoa bideratu behar da.</li> <li>— Erregistroaren erabilpena negoziatu behar da.</li> </ul>

<b>EGUNEROKOA</b>
<p>Zertan datza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Gertaeren eguneroko kontakizuna idazten den izkribua da.</li> <li>— Bereizi egiten dira gertaeren deskribapena eta hauei buruzko interpretazioak.</li> <li>— Jeneralean ebaluatzaileak eskaturik idazten da.</li> <li>— Irekia edo fokalizatua izan daiteke</li> <li>— Informatzailearen inplikazioa behar-beharrezkoa da.</li> <li>— Fidagarritasun tenporala eskatzen du</li> </ul>
<p>Orientazioa: kuantitatiboa / kualitatiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Kualitatiboa</li> </ul>
<p>Aldekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Curriculumaren aspektu objektibo zein subjektiboetara iristeko erraztasuna</li> <li>— Informatzailearen hurbiltasuna egoera naturalekin</li> <li>— Informatzailearen inplikazioa ebaluazioarekin</li> </ul>
<p>Kontrakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Informatzailearen subjektibotasunaren eragina.</li> <li>— Informatzailearen inplikazio exigentzia</li> </ul>

<b>KARPETA</b>
<p>Zertan datza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Curriculumaren erabiltzaileak ikaste-prozesuaren ibilbidean egiten duen lana eta eraikitzen dituen interpretazioak adierazten dituen dokumentu-multzo ordenatua edo txostena.</li> <li>— Karpeta osatzeko irizpide argiak eman behar dira sentidurik gabeko lan metaketa ekiditeko.</li> <li>— Karpeta-aren edukia ahozko azalpen negoziatuaren bidez agertzen zaio ebaluatzaileari</li> </ul>
<p>Orientazioa: kuantitatiboa / kualitatiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Kualitatiboa</li> </ul>
<p>Aldekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Informatzailearen inplikazioa ebaluazioarekin</li> <li>— Partaidetza aktiboa bultzatzea curriculumaren garapenean.</li> <li>— Sormena bultzatzen du</li> <li>— Aspektu objektibo zein subjektiboetara iristeko erraztasuna</li> </ul>
<p>Kontrakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Lan handia exijitzen dio bai ebaluatzaileari bai informatzaileari</li> <li>— Denbora asko exijitzen du fase guztietan</li> </ul>

<b>PROBA BATURAGARRIA</b>
<p>Zertan datza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Norbaiti, zerbaierako gauza den edo gai batez zenbat dakien ikusteko egiten den proba edo proba-multzoa</li> <li>— Curriculumaren ikasleen ikaskuntzei buruzko helburuen lorpen maila ebaluatzerantz orientatzen dira.</li> <li>— Orain arte aipatutako hainbat tekniken diseinua har dezakete: galde-sortak, izkribu irekiak, elkarrizketak</li> </ul>
<p>Orientazioa: kuantitatiboa / kualitatiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Kuantitatiboa / kualitatiboa</li> </ul>
<p>Aldekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Ikasleen ikaskuntzak ebaluatzea errazten du.</li> <li>— Oso malguak dira</li> <li>— Tradizio handikoak dira</li> <li>— Bere erabilpena erabat txertatuta dago hezkuntza praktikan</li> </ul>
<p>Kontrakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Egoera artifizialean egin ohi dira.</li> <li>— Tentsioa, estresa eta angustia sor ditzakete.</li> <li>— Naturaltasuna galaraz dezakete.</li> <li>— Erabilpen eksklusiboak abiapuntu eta prozesuen ikuspegia galarazten du.</li> </ul>

Azken ohartxoa teknikei buruz: zenbat eta teknika gehiago erabili orduan eta ikuspegi aberatsagoa izanen dugu. Teknika desberdinak erabiliz ebaluazioak huts egiteko arriskuak gutxituko ditugu arras. Baina, zenbat eta teknika gehiago erabili orduan eta lan gehiago izanen dugu informazioen analisia egiteko. Teknika bakoitzak ibilbide propioa dauka (diseinua, aplikazioa eta emaitzen analisia). Teknika bat, ibilbide bakarra; bi teknika, bi ibilbide; hiru teknika, hiru ibilbide;... Ibilbide hauek ebaluazio prozesuaren bukaeran elkartzen dira, baina bien bitartean teknika bakoitzak bere bereko lan garapena dauka. Zenbat teknika hainbat lan-bide. Ebaluatzaileak kalkulu hauek ere bai egin behar ditu.

## **8. NORK EBALUATZEN DU? EBALUATZAILEAREN BETEKIZUNA**

Ebaluazioaren agenteei buruz hitz egiten dugunean, ebaluazio prozesuan parte hartzen duten protagonista desberdinen betekizunak bereizi behar ditugu, kontzeptuzko nahasketak izaten baitira maiz samar. Funtsean bi paperak desberdin behar ditugu: batetik ebaluatzailearen papera eta bestetik informatzailearen papera. Ebaluatzaileak prozesuaren ardurara dauka bere gainean. Berari dagokio testu honetan jorratzen ari garen galderak erantzutea (edo ebaluazio-prozesua planifikatzea), ebaluazio prozesua aurrera eramatea, ebaluazioaren txostenak idaztea eta ebaluazioaren ondorengo hobekuntza-prozesuak bultzatzea. Aldiz, informatzaileak ebaluatzen den objektuari buruz informazioak ematen dizkio ebaluatzaileari, baina ez dauka bere gainean ebaluazio prozesuaren gaineko ardurarik. Informatzaileak ebaluatzen ari garen objektuari buruzko iritzi baloragarriak eskaini ditzake, baina partaidetza honek ez du ebaluatzaile bilakatzen. Ebaluazio prozesuaren barruan informatzailearen lankidetzara, funtsean, informazioak eta balorazioak ematean datza.

Puntu honetan ebaluatzailearengan zentratuko gara. Botatzen dugun galdera honakoa da: nork bete behar du ebaluatzailearen papera?

Izan ere galdera honi erantzuteko aukera desberdinak ditugu. Alegia, ebaluatzailearen jatorriaren arabera ebaluazio mota desberdinak bereiz ditzakegu:

- a) Ebaluatzailea curriculumaren garapenarekin ardurarik izan ez duen agente bat (edo batzuek) izan daiteke. Kasu honetan ebaluatzailea kanpoko agentea da. Ebaluazio mota honi kanpoko ebaluazioa deitzen diogu.

- b) Ebaluatzailea curriculumaren garapenean inplikaturata egon den agente bat (edo batzuek) izan daiteke. Kasu honetan ebaluatzailea barneko agentea da. Ebaluazio mota honi barneko ebaluazioa deitzen diogu
- c) Ebaluatzailearen ardura hartzeko kanpoko eta barneko agenteak elkartu daitezke. Ebaluazio mota honi ebaluazio mistoa deitzen diogu.

Hiru aukera, hiru fokapen desberdin. Curriculum ebaluatzeko orduan, zein da egokiena? Zaila da galdera erantzutea ebaluazioaren testuingurua ezagutu gabe: ebaluazioaren helburuak, eskutan ditugun baliabideak, finkatu ditugun epeak, e.a. Izan ere testuinguruko faktore hauek baldintzatuko dute ebaluazioaren fokapena. Hala ere ikuspuntu teoriko batean oinarrituz hainbat ideia jorra ditzakegu, praktikak interpretazio propioak eragingo dituela jakinik.

Ebaluazioaren fokapen kualitatiboa barneko ebaluazioan oinarritzen da. Fokapen honen arabera ebaluatzaileak barneko agentea izan behar du; barneko agente bat bakarrik legitimatuta baitago bertako curriculumaren planifikazio, garapen eta emaitzei buruzko balioespenak eta interpretazioak egiteko. Fokapen honen arabera kanpoko agenteak ezin dira jabetu curriculumaren sortze eta garapenean izan diren gertaerez eta interpretazioez.

Ebaluazioaren fokapen kuantitatiboa, berriz, kanpoko ebaluazioan oinarritzen da. Fokapen honetarako kanpoko ebaluatzaileak daukan distantziak ebaluazioaren objektibotasuna, independentzia eta sinesgarritasuna sustatzen ditu. Jeneralean kanpoko ebaluazioa kontrolaren eta akreditazioaren funtzioekin lotuta izaten da. Dena den kanpoko ebaluazioa izanda ere, ekimena barnetik sortua izan daiteke ere bai. Hau da, ikastetxetik bertatik sortu ahal izan da curriculum ebaluatzeko ekimena, nahiz eta gerora ebaluazio prozesuaren ardura kanpoko agente bati eman.

Kontrajartzen diren aurreko bi fokapenen artean ebaluazio mistoa kokatzen da. Kasu honetan ebaluatzaile papera kanpoko eta barneko agenteek, biek batera, hartzen dute. Jeneralean fokapen honetan ebaluazio-ekimena ikastetxetik bertatik sortzen da. Kanpoko agenteak laguntzaile teknikoaren papera jokatzen du. Dena dela fokapen mistoan agente desberdinek izaten duten lanaren eta protagonismoaren arabera ebaluazio-prozesua barneko ebaluazioarekin ala kanpoko ebaluazioarekin identifika daiteke.

Ondoren koadro batean bi poloetan kokatzen diren barneko eta kanpoko ebaluazioen ezaugarriak laburtzen ditugu.


	<b>Baldintzak</b>	<b>Aldekoak</b>	<b>Kontrakoak</b>
<b>Barneko Ebaluazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Curriculumaren garapenaren barruan kokatu behar da</li> <li>—Hausnarketa intuitibotik analisi sistematikora pasa behar da.</li> <li>—Ebaluazioaren bultzatzailearen papera (zuzendaria, koordinatzailea,...) oinarri-oinarrizkoa da taldea inplikatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Barneko komunikazioa errazten du.</li> <li>—Curriculumaren barrendik dinamizatzeko ahalmena indartzen du.</li> <li>—Ebaluazioa eta hobekuntzaren arteko lotura ezartzen du.</li> <li>—Testuinguruarekin egokitzen da.</li> <li>—Mehatxagarritasun pertzepzioa gutxitzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Ebaluatzaileek (irakasleek, zuzendariak,...) denbora hartu behar dute.</li> <li>—Ebaluazioa autojustifikaziorako erabili daiteke.</li> <li>—Objektibotasuna eta sinesgarritasuna arriskuan egon daitezke.</li> <li>—Jeneralean ez dago kanpoko erreferenteekiko alderaketarik.</li> </ul>
<b>Kanpoko Ebaluazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Barneko agenteen adostasuna.</li> <li>—Ebaluatzailearekiko identifikazioa.</li> <li>—Ebaluatzaile onak izatea.</li> <li>—Ebaluatzaileak curriculumaz ezagutu behar du.</li> <li>—Guztionean aldekoa izatea. Sektore jakin baten intereskoa ez izatea.</li> <li>—Prozesuaren eta emaitzen gaineko gardentasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Independentzia.</li> <li>—Ebaluazioari eskaintzeko denbora izatea.</li> <li>—Especializazio tekniko. Zehaztasuna.</li> <li>—Ondorioen sinesgarritasuna.</li> <li>—Balioespenen inpartzialtasuna.</li> <li>—Kanpoko erreferentzien erabilpena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Barne-prozesuetara iristeko zailtasuna.</li> <li>—Ikastetxearen komunitatearen errefusatzeko eragiteko arriskua.</li> <li>—Ebaluatzailearen subjektibotasunarekiko mendetasuna.</li> </ul>

## 9. EBALUAZIOAREN UNEAK

Puntu honekin «noiz ebaluatu?» galderari erantzun nahi diogu. Beti bezala galdera honen erantzuna abiapuntutzat dugun fokapenak baldintzatuko du.

Curriculumaren ebaluazioa ikuspuntu kualitatibo, interpretatzaile eta barneko batean oinarriturik egin nahi badugu, argi dago ebaluazioak curriculumaren martxa berbera izan beharko duela. Alegia, ebaluazioa curriculumaren eguneroko dinamikan txertatutako osagarria izanen da. Ikuspuntu honen arabera ebaluazioa oso hurbil dago «ikerketa-ekintza» deitu izan den lan-prozeduratik. Dakigun bezala «ikerketa-ekintza»-ren planteamenduaren arabera irakasleak (edo hezitzaileak) bere praktikaren ikertzailea izan behar du. Hezitzaileak uzten dio curriculumaren aplikatzaile edo igorle hutsa izateari curriculumaren diseinatzaile, aktorea eta ikertzailea bila-


katzeko; hezkuntza-eginkizun guzti hauek bere gainean biltzen ditu. Proposamen honetan ebaluazioak irakasleari bere praktikari buruzko hausnarketa bideratzeko informazioa eskaintzen dio, beti ere prozesu ziklikoetan zehar. Ikuspuntu honetara hurbildu nahi izanez gero irakasleek (edo hezitzaileek) euren eguneroko dinamikan ebaluazio sistematikoa bideratzeko prozedurak planifikatu beharko dituzte. Ebaluazioaren faseak (ondoko letrorotan zehaztuko ditugunak) egunerokotasunean integratu beharko dituzte, elkarrekiko hausnarketa ebaluatzailearentzat lan-denborak eta espazioak gerturatuz.



Ebaluazioaren abiapuntuko fokapena ikuspuntu kuantitatiboa, kanpoko eta objektiboan oinarritzen bada prozedurak bestelakoak izanen dira. Ebaluazioa curriculumaren prozesuan txertatutako azpi-prozesua izan beharrean, prozesu paraleloa edo kanpoko izanen da. Ebaluazioak berezko dinamika izanen du, curriculumaren dinamikarekin batera doana, baina ez berarekin integratua. Ebaluazioak proiektu propioa izanen da, curriculumarekin uztartuta, baina, aldi beran, harengandik berezia.

Noski, bi eredu hauek planteamendu teorikoa laguntzeko eginda daude, hezkuntza praktikan hauetaz gainera erdibidean kokatzen diren beste ereduak topatuko ditugu. Praktika ez da zuria al beltza, bi poloen artean aukera askotxo sartzen da. Dena den ebaluazio prozesu batek beti ere aurreikusi behar diren urrats batzuk bete beharko ditu. Urrats hauek modu desberdinean egingo dira erreferentziako ereduaren arabera (kuantitatiboa ala kualitatiboa, barnekoa ala kanpoko, ...), baina era batera edo bestera bete egin beharko dira. Eredu kualitatibo-interpretatzailearen arabera urrats edo une hauek irakasle taldearen egunerokotasunean txertatuta egongo dira eta ebaluazioaren une espezifikoak curriculumaren uneekin bat egingo dute. Eredu kuantitatibo-objektiboan une hauek ebaluazioaren berezko proiektuaren faseak edo urratsak izango dira.





## Ebaluazioaren proiektua

Izkribu hau bukatzeko ebaluazioa planifikatzeko eta gidatzeko osatu beharreko txostena analizatuko dugu labur-labur. Izan ere ebaluatzaileak planifikazio-txostena idatzi beharko du ebaluazio prozesu bati ekin nahi dion aldioro. Txostena idazteak bere ideiak ordenatzen, asmoak argitzen eta nahiak azaltzen lagunduko dio.

Txostenak ez du arau itxirik, testuinguruko eskabideek eta norberaren gertutasunak baldintzatuko dute txostenaren nolakotasuna. Hala ere beti izaten da komenigarria txostena osatzeko eredu baten jabe izatea. Lerro hauetan eredu bat argitzen dugu; ez da bakarria eta, seguruena, ez da hobereena ere. Denan den geuk ariketa praktikoetan erabilitako ereduak da eta txostenari exijitu beharreko funtzioak betetzen dituela esan dezakegu. Jaki-na testu honetan ez dugu analizatu txostena osatzeko aipatzen ditugun elementu guztiak. Baina, ebaluazio prozesua zehazteko argitu beharreko aspektu garrantzitsuenak jorratu ditugulakoan gaude. Beste lan baterako, espazio gehiago izanik, utzi beharko dugu jarraian aipatzen diren elementu guzti-guztien analisisa. Hona ebaluazio-proiektu idatzia osatzeko proposatzen dugun ereduak:

1. Egiletza orria
  - Lanaren izenburua.
  - Egilea.
  - Egilearen saila, enpresa,...
  - Egilearekin harremanetan sartzeko datuak.
  - Data.
  
2. Aurkibidea

3. Sarrera
  - Lanaren sorrera (nondik-norakoak).
  - Zer topatuko dugun ondoko orrietan (ikuspegi orokorra, atalka,..).
  - Beste batzuk.
  - Esker onak.
4. Ebaluazioaren planteamendua
  - Justifikazioa: zer ebaluatu behar dugun eta zergatik (objektua gehi arrazoiak).
  - Testuinguruaren analisia (deskribatu ulertzeko).
  - Ebaluazioaren funtzioa.
  - Ebaluazio mota: barnekoa / kanpoko / mistoa;
  - Bideragarritasuna eta mugak.
5. Ebaluazioaren diseinua
  - Ebaluazioaren helburuak. Helburu orokorrak eta espezifikoak zehaztu daitezke. Zerk bultzatzen gaituen eta zer lortu nahi dugun.
  - Hipotesiak (gure lan markoa hipotesietan oinarritzen bada).
  - Eredu teorikoa.
  - Ebaluazio metodoa: justifikazioa eta deskribapena.
  - Zer ebaluatzen dugun: dimentsioak, kategoriak eta aldagaiak.
  - Nola ebaluatzen den: informazioa jasotzeko teknikak; erabili beharreko tresnen deskribapena.
  - Ebaluazioaren informatzaileak: nortzuk diren eta zer-nolako lankidetzak eskatzen diegun.
  - Informazioaren prozesaketa eta analisia. Zer prozesaketa eta analisi burutu behar dugun.
  - Fidagarritasuna eta balidezia: nola bermatu behar diren.
6. Planifikazio operatiboa
  - Ekintza plana.
  - Denboratzea
7. Hizketakideak eta konfidentzialtasuna
  - Ebaluazioaren hizketakideak: nori zuzentzen zaion.
  - Konfidentzialtasuna: bildutako informazioen erabilpena eta publizitatea.
  - Banatuko diren txostenak: norentzat eta zein motatakoak (edukiak); zenbat txosten eta noiz emango diren.
8. Baliabideak eta aurrekontua
  - Ekipamendua eta eraikuntzak.
  - Material ahigarria.
  - Joan-etorriak eta dietak.
  - Landa-lana.
  - Beste.
9. Bibliografia
10. Eranskinak

Horraino ebaluazio proiektua aurkezteko txostena. Orain eman dezagun ebaluazioa egin dela eta bukaerako txostena aurkeztu beharrean gaudela. Orduan proiektu bezala aurkeztutakoari heldu beharko diogu eta praktikak agindutako aldaketak integratu beharko ditugu. Bestalde egitasmo bezala erabilitako aurkezpen formala (aditz denborak e.a.) egokitu beharko dugu, burututako esperientzia bezala aurkezteko. Baina, funtsean, idatzitakoa baliagarria izanen da bukaerako txostena osatzeko. Azken txosten honetan, proiektuan idatzitakoari (eta egokitua) honakoa erantsi beharko diogu:

## 2. Parte: EMAITZAK

1. Emaizen aurkezpena.
2. Emaizen interpretazioa eta eztabaida.
3. Ebaluazioaren konklusioak.
4. Hobekuntzarako inplikazioak.
5. Ondorengo lanetarako iradokizunak.
6. Bibliografia.
7. Eranskinak.

Jasotze-data: 2005-02-21

Onartze-data: 2005-05-20

### *Abstract*

---

*The objective of this article is to reflect on socio-educational curriculum evaluation. Reflections are made on the concept of evaluation and the general ideas which are presented and they are projected towards the specific purpose of the article: the socio-educational curriculum. The specificity of the evaluation subject poses an evaluative development, which is both theoretical and practical, and differentiated from other processes with its own characteristics which will be explained throughout the article.*

*The article possesses a defined practical vocation and as well as developing the basic ideas it proposes work models which can be projected on to practical situations by interested readers. In short, it tries to respond to traditional questions within the field of evaluation from the curricular point of view: evaluation functions, objectives, methods, purpose, techniques, evaluator tasks, phases and moments, etc.*

**Keywords:** *Evaluation. Curriculum. Curriculum evaluation.*

---

*El objetivo de este artículo es reflexionar sobre la temática de la evaluación del currículum socio-educativo. Se hacen reflexiones sobre el concepto de evaluación y las ideas generales que se presentan se proyectan hacia el objeto concreto del artículo: el currículum socio-educativo. La especificidad del objeto de evaluación plantea un desarrollo evaluativo, tanto teórico como práctico, diferenciado de otros procesos, con características propias que se intentan explicar a lo largo del artículo.*

*El artículo posee una definida vocación práctica y además del desarrollo de las ideas básicas propone modelos de trabajo que puedan ser proyectados a la práctica por los lectores interesados. En definitiva, se intenta responder a las preguntas tradicionales del ámbito de la evaluación desde la óptica curricular: funciones de la evaluación, objetivos, métodos, objeto, técnicas, tareas del evaluador, fases y momentos, etc.*

**Palabras clave:** Evaluación. Currículum. Evaluación del currículum.

---

*Le but de cet article est de se pencher sur la thématique de l'évaluation du programme socio-éducatif. On réfléchit sur le concept d'évaluation et les idées générales qui se présentent sont projetées vers l'objet concret de l'article : le programme socio-éducatif. La spécificité de l'objet à évaluer nécessite d'un développement évaluatif, aussi bien théorique que pratique, différent d'autres processus, avec des caractéristiques propres que l'on essaie d'expliquer le long de l'article.*

*L'article possède une vocation pratique définie et en plus du développement des idées de base il propose des modèles de travail qui peuvent être projetés sur la pratique par les lecteurs qui seraient intéressés. En définitive, on essaie de répondre aux questions traditionnelles du domaine de l'évaluation du point de vue des programmes : fonctions de l'évaluation, objectifs, méthodes, objet, techniques, tâches de l'évaluateur, phases et moments, etc.*

**Mots clé:** Évaluation. Programme d'études. Évaluation du programme d'études.

---

## BIBLIOGRAFIA

- BARBERÁ, V. (1990). *Método para la evaluación de centros*. Madrid: Escuela Española.
- CAMILLONI, A.R.W. et al. (1998). *La evaluación de los aprendizajes en el debate didáctico contemporáneo*. Buenos Aires: Paidós.

- CASANOVA, M.A. (2004). *Evaluación y calidad de centros educativos*. Madrid: La Muralla.
- COOK, T.D. & REICHARDT, Ch.S. (1986). *Métodos cualitativos y cuantitativos en investigación evaluativa*. Madrid: Morata.
- ELLIOT, J. (1990). *La investigación-acción en educación*. Madrid: Morata (4. argitalpena: 2000).
- INSTITUTO NACIONAL DE CALIDAD Y EVALUACIÓN. (2002). *Sistema estatal de indicadores de la educación*. Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.
- JOINT COMMITTEE ON STANDARDS FOR EDUCATIONAL EVALUATION. (1988). *Normas de evaluación para programas, proyectos y material educativo*. México D.F.: Trillas.
- MCCORMICK, R. & JAMES, M. (1996). *Evaluación del currículum en los centros escolares*. Madrid: Morata.
- MONEDERO, J.J. (1998). *Bases teóricas de la evaluación educativa*. Archidona (Málaga): Aljibe.
- ORDEN, A. de la. (1982). *La evaluación educativa*. Buenos Aires: Docencia.
- ROSALES, C. (1990). *Evaluar es reflexionar sobre la enseñanza*. Madrid: Narcea.
- SANTOS, M.A. (1990). *Hacer visible lo cotidiano. Teoría y práctica de la evaluación cualitativa de los centros educativos*. Madrid: Akal.
- STENHOUSE, L. (1987). *La investigación como base de la enseñanza*. Madrid: Morata.
- STUFFLEBEAM, D.L. & Shinkfield, A.J. (1987). *Evaluación sistemática. Guía teórica y práctica*. Barcelona: Paidós-MEC.
- ZABALZA, M.A. (1989). *Diseño y desarrollo curricular*. Madrid: Narcea (8. argitalpena: 2000).